



## Gerturatu Eta Lau: bertso saioak solasgai

Saio bereziak izango dira proposatzen ditugunak, izan ere, bertsozaleok ere saioetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Horretarako, jarraibideak emango zaizkizue saio aurretik.

Beti esan izan da bertsolari taldeko ekintza dela. Baina, zenbateraino aztertu dugu taldetasun hori? Nolako litzateke bertsolariaren egitura bera feministagoa, kooperatibagoa eta horizontalagoa balitz? Bertsolari elementu askok osatzen dute, eta batzuetan joera izaten dugu elementu horiek era isolatuan aztertzeko. Bertsolaria eta gai-jartzailea. Bertsolaria eta entzulea. Kantatzen dena eta kantatzen duen gorputza. Testua eta kantaera. Muga zurrinak ezarri ordez horiek lausotu eta bertsolari beste leku batetik biziko bagenu, ez ote genuke sorkuntzarako leku eta bide berririk aurkituko?

Galdera eta hausnarketa horietatik sortu da Gerturatu Eta Lau (GEL), urrutitik begiratu izan ditugun pieza horien arteko

harremana beste modu batean lantzeko ahalegina egin nahitik. Lau bertso saio eta eztabaidagune izango dira proposatzen ditugunak, lau ardatzetan egituratuta: bertsolariaren erabakimena, entzuleen erabakimena, kantaera eta gorputzen arteko harremana.

### Zaleok parte-hartzaile

Gerturatu Eta Lau denontzako izango da esperimendu. Horregatik, bertsozaleok ere saioetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Saio bakoitzaren aurretik, entzule bakoitzari saiorako jarraibideak emango zaizkizue, eta, horrela, saioa osatzeko ardura ez da bakarrik bertsolariena edo gai-jartzaileena izango: guztion artean osatuko dugu ikuskizuna.

Saio bakoitzean ikusi eta aztertu ahal izango denari buruzko informazio zehatzagoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian topatuko duzue. Sarrera doakoa da, baina izena eman behar da aurretik webgunean dagoen izen-emate orria beteta.



ROSI LAZKANO LARRAÑAGA

Getaria, 2021-III-27

**Bertso Eguna:**  
Bertso sorta emakume jostunei

**Doinua:** Zertarako mugak jarri

Mantalen dantzan, suaren bueltan Benantxi edo Ximona ama ez bazan amona... Kafea presto edozeinentzat nahiz urri zuten txanpona otorduero asetu behar mahaikada plater sakona ahal bezain goxoa, ona. Baina saldaren izarrei falta *Michelin*-ek duen sona.

Sorta osoa [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) atarian.

<b>Gauzkaten Ezterri Lerratuak</b> Kantaera	<b>Gure Esku Legoke</b> Entzuleen erabakimena	<b>Gorputzak Esango Luke</b> Bertsolariaren testua eta gorputza	<b>Gaur Edozertarako Libre</b> Bertsolariaren erabakimena
<b>Maiatzak 6, osteguna.</b> Donostiako Larratxo kultur etxea. 18:30.	<b>Maiatzak 11, asteartea.</b> Bilboko Bilborock aretoa. 18:30.	<b>Maiatzak 18, asteartea.</b> Gasteizko Baratzte aretoa. 18:30.	<b>Maiatzak 25, asteartea.</b> Zarauzko Modelo aretoa. 18:30.
Bertsolariak: Etxahun Lekue, Haizea Arana, Maddi Ane Txoperena eta Maialen Lujanbio.	Bertsolariak: Eneko Lazkoz, Jone Uria, Maider Arregi eta Oihana Iguaran.	Bertsolariak: Ane Labaka, Aner Peritz eta Nerea Ibarzabal.	Bertsolariak: Amaia Iturriotz, Oihana Bartra eta Xabat Gallettebeitia.

## Heriotzaren gaia landuko dugu "Azken bidaia" saioan

Donostiako San Telmo museoan izango da saioa ekainaren 19an, 18:00etatik aurrera; sarrerak eskuragai daude, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian.

Bidaia saio esperimentalak osatu ditugu aurtengo ikasturtean, plazatik harago, bestelako emanaldi eta saiakera berritzaileei aukera emateko helburuarekin. Urrian, *Bertsoa Sutan* saioan, sukaldaritza eta bertsoa uztartu zituen emanaldia eskaini genuen Chillida Lekun; otsailean, berriz, *Uhinak* saioa egin genuen Amasa-Villabonan, irratitari lotutako saio berezia.

Uda aurretik azkenari *Azken bidaia* jarri diogu izenburutzat, eta heriotza izango du ardatz eta kantagai. Heriotzaren inguruan ohikoak diren drama eta umore-ihesa ekidinez, heriotzari

hainbat ertzetatik kantatzeko aukera eman nahi du bertso saio honek.

*Azken bidaia* saioa Donostiako San Telmo museoeko klaustroan izango da ekainaren 19an, 18:00etatik aurrera. Kantuan Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza eta Julio Soto arituko dira eta Jon Sarasuak ere parte hartuko du gonbidatu gisa.

Saiorako sarrerak eskuragai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian.



Gai desberdinen inguruko bidaia proposatu ditugu, saioen bidez saiakera berritzaileak egiteko. / XDZ

## Señora Sariketa hasiko da larunbatean

Zenbait bertsolarik antolatutako egitasmoa babestuko du Bertsozale Elkartean. Bi saio eta finala izango ditu: sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian izango dira eskuragai.

Emakumeen ahalduz pauso bat gehiago emateko asmoz sortu da Señora Sariketa, zenbait emakume bertsolarik eta bertsozale feministek antolatuta eta Bertsozale Elkartean babespean. Apirilaren 17an eman zitzaion hasiera Aramaion, eta beste saio bik osatuko dute sariketa. Apirilaren 24an, Mutrikun izango da saioa eta finala maiatzaren 8an jokatu da, Lesakan.

Hamalau emakumek egingo dute bertsotan. Sei bertsolarikoak dira lehenengo saio biak, eta horietatik bina bertsolari sailkatuko dira finalera. Lau horietaz gain, antolatzaileek esan dutenez, "señora izateagatik" dagoeneko sailkatuta dauden

beste bi bertsolari ariko dira; ez dugu jakingo nortzuk diren eguna iritsi arte.

Aramaioko saioa lehengo larunbatean izan zen, eta, hurrengoan, apirilaren 24an, izango da bigarren kanporaketa Mutrikuko Kalbarioko ermitan 17:00etan: Ainhoa Agirreazaldegia, Aissa Intxausti, Oihana Arana, Oihana Bartra, Paula Amilburu eta Saioa Alkaiza ariko dira bertsotan. Maite Berriozabalek gidatuko du saioa.

Mutrikuko zein Lesakako saioetako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian daude eskuragai.

## Pandemia garaiko kultur gintza aztertuko dugu Uda Ikastaroetan

Ekainaren 21ean eta 22an izango da ikastaldia, UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean; izena emateko epea zabalik dago.

Aurtengoan ere Mintzola Ahozko Lantegiak jarri du bere alea UPV/EHUko Uda Ikastaroetan. Puri-purian dagoen gaia dakargu mahai-gainera antolatutako dugun ikastaro honetan: *Pandemia garaiko kultur gintza: egoera eta erronkak*. Oraintsu aurkeztu dira UPV/EHUko ikastaro guztiak eta jadanik irekita dago matrikulazio epea.

Ekainaren 21ean eta 22an izango da ikastaroa, goizez, UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean kokatuta dagoen Ignacio Maria Barriola Zentroan. Laz egin bezala, aurtengo ere izango da online jarraitzeko aukerarik.

UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek, sortzaileek eta hainbat kultur erakundetako ordezkariak hartuko dute parte ikastaroan: Harkaitz Zubiri Esnaola, Manex Fuchs Castagnet, Oihana Iguaran Barandiaran... Hizlari guztien zerrenda eta programa osoa, [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian duzue ikusgai.

### Aurrera begira jartzeko aukera

COVID-19aren pandemiak denok astindu gaitu. Egitura eta diskurtso askoren zimenduak kolokan jarri ditu, eta itxura sendoa zeukaten beste hainbat oinarriren hauskortasuna agerian utzi du. Krisia ziurgabetasun eta beldur aroa izaten da, baina baita inertziak apurtu, gelditu eta aurrera begirako estrategiak diseinatzeko garaia ere. Kultur gintzako eta herrigintzako hainbat zale, sortzaile, ikertzaile, teknikari eta mugimendu ari dira horretan. Horien guztien ikuspegiak eta bizipenak plazaratzeko gunea izango da *Pandemia garaiko kultur gintza: egoera eta erronkak* izeneko ikastaroa, baita aurrera begirako erronkez aritzeko ere.

Ikastaroan izena emateko aukera zabalik dago. 77 euro balio du matrikula arruntak, baina badaude prezio murriztuak ere kasuan kasu; horiek ikusteko, sartu [www.uik.eus](http://www.uik.eus) atarian.



Zabalik dago Uda Ikastaroetako matrikula epea. / XDZ

## Bertsolaritza ikertzeko aukera, Kilometroen eta Mintzola eskutik

Goierri eskualdea izango da ikertzeko eremua aurtengoan eta 3.000 euroko saria emango zaio proiektu hautatuaren egileari ikerlana garatzeko. Ekainaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira proposamenak.

Iaz Pello Mari Otaño Ikerketa Bekarekin izandako emaitzarekin gustura, aurtengoan ere ikerketa beka deitu dute Kilometroak Kultur Elkartean eta Mintzola Ahozko Lantegiak. Ahozko ondarea biltzeko, ikertzeko eta ezagutzera emateko helburua du deialdiak; bertsolaritza mami duten ikerketa proposamenak ere ongietorriak izango dira, beraz.

Goierri eskualdeko (Gipuzkoa) ahozko ondarea ikertzeko proposamena egiten dutenentzat da deialdia, hain zuzen, hango zenbait ikastolak hartu baitute aurtengo Kilometroak

antolatzeko ardura: Beasaingo Andramendi, Ordiziako Jakintza eta Lazkaoko San Benito ikastolek babesten dute ikerketa deialdia.

3.000 euroko saria eskuratuko du hautatutako ikerketa proiektuaren egileak edo egile taldeak, ikerlana urtebeteko epean garatzeko. Ekainaren 30erako aurkeztu behar dira proposamenak. Deialdiari buruzko xehetasunak [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) atarian topatuko dituzue.





## Puntua jarrita

**XERMIN CAMBLONG MOUNEIN**

Usutan bezala, galdera interesgarrien jabe egin zira Lur, eta erantzunak, naizen interlokutore pertinenteagoa merezitzeaz gain, zutabe hunek eskaintzen duena baino toki gehiago ere mereziko zukeen. Halere, huna ohar batzuk :

Zure zutabearen barna, forma eta edukiaz mintzatu zira bata bestea gabe joaiteko gai bailiran. Alderantziz, uste dut bata besteari txirikordatuak direla, eta hori dela, oro har, hizkuntzaren defaulta zoin edertasuna. Zerbait adieraztea, norbaiti, zerbaiten bidez: Ni-objektua-beste.

Arazoa hizkuntzak duen funtzio poetikoan datza. Errealitatearen konplexutasuna kausitu nahi dugu, tresna zehazgabearekin; hau da, metaforez josia, hitz polisemikoez, figura erretorikoez...

Ez da harritzekoa, matematikariak egia unibertsalak eraikitzeko bere hizkuntza propioa sortu izana.

Mundua arrazionalizatzen du, objektu partikularra bazterrean utziz, objektu abstraktu eta generikoetaz intresatzeko. Alabaina, mundu naturalarekin hein batean ibil badaiteke, agerikoa da ez dezakeela materia sozialarekin ber efikazitatearekin funtziona.

Interesa gaitzen olerkariak, beraz, garaiko inkontzientzia hitzetan hezuramaitzea esleitzen zaio, mugimendu dialektiko etengabearen den munduaren fasea sesituz. Funtzio hau bete behar du gainera, forma ederrean. Inportantzia berekoak zako edukia eta forma. Ikusi dugunaz, kosmobisio zehatz eta indar produktiboan garapen zehatz batean, edertasunaren bilaketak, edukia bigarren planoan uztera ere ekar lezake.

Arrazoin duzu, barra ixkineko bertsulariok edukari lehentasuna ematen dakogu. Funtsean, ez baitugu hautu handirik, gure teknika kaxkarraren esklabu gira. Hortaz, erran nezake bakarrik teknika hein minimo batetik goiti ondu ditzakezula adierazko bertsuak. Formak, berriz, ez dakolarik bistan da edukari gaina hartu behar, ene iduriko.

Filosofoaren rola gaineko bi pertsonaien sintesia egitea da, olerkariaren ikusmoldea, matematikariaren zehaztasunarekin.


Nago, bertsulariena zoin den jakiten lagunduko gaituela, Maddi Sarasuak. Ederra ala egia?

# Koplak

## Maiatzean egingo da bazkidetza kuotaren kobraketa

Urtero bezala, maiatzarekin batera urteroko kuota kobratuko zaizue Bertsozale Elkarteko bazkideoi. Kuotaren zenbatekoa, iaz bezala, 60 eurokoa izango da norbanakoen kasuan, eta 120 eurokoa, berriz, elkartearen kasuan. Beste behin ere, eta, egoera berezi honetan bereziki, eskerrik asko Bertsozale Elkartearen sostengu nagusia izateagatik. Mila esker!

## Poto-Finixa



## Gipuzkoa, Eskolartekoa martxan jartzen lehenengoa

20 gaztek eman dute izena Gipuzkoako Bat-bateko Eskolarteko Txapelketan. Apirilaren 23an izango da lehenengo saioa, Oiartzunen. Guztira, lau kanporaketa egingo dira, eta finala maiatzaren 28an izango da Urrietako Saroben. Saioak entzuteko gonbidapenak, kanporaketetakoak zein finalekoak, [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian eskatu beharko dira saio bakoitzaren aurreko astelehenetik hasita. Beste herrialdeetako eskolarteko gehienak maiatzean hasiko dira. Aurrerago emango dizuegu horien berri.



Eskuragarri [www.lanku.eus](http://www.lanku.eus) atarian

PUBLIZITATEA